

ARANTXA URRETABIZKAIA, IBILBIDEARI OMEN

Urratzaile aritu da Arantxa Urretabizkaia literatur ibilbidean zein kultur jardunean. Bide urratze sotilak egin ditu ibilbidean zehar, baita kode eta pentsamendu urratze sotilak ere. **Bide urratzaile aritu da** literatur gaiak jorratzean: besteak beste, 1979. urtean, dibortzioa legezkoa ez zen garaian, *Zergatik panpox* nobelan amatasunaren barne-korapiloak eta gizarte-zamak izan zituen literaturagai, emazte abandonatu baten ahotsetik; 1983. urtean, “Aspaldian” narrazioan bi emakumeren arteko desirari ahotsa eman zion; 1987. urtean, *Saturno* nobelan, maskulinitate hautsi bat irudikatzeko, alkoholaren eta poteoaren kulturaz jardun zuen, zeharka bada ere; 1998. urtean, *Koaderno gorria* nobelan, militantzia politikoaren eta amatasunaren arteko tentsioak izan zituen hizpide; 2010. urtean, *3 Mariak* nobelan, zahartzaroko zaintza sareez jardun zuen. Hortaz, garaian garaiko gizarte auziei heldu die, gehienak ere garaitu haietan ageriko auzi ez zirenak, literatur plazan ozen aipatzen ez zirenak. Hartara, gizarte normalitateaz besteko posizioak eta pertsonaiak gorpuztu izan ditu, bizi-ibilbide eta bizi-hautu zenbaiten inguruko erretratu sotilak eginez. Bizi-ibilbide horiek begirada zoliz zeharkatu ditu, eguneroko xehetasunetan arreta berezia jarrita, ñabardura txikien garrantzia hanpatuta.

Kode urratzaile ere aritu da Arantxa Urretabizkaia, genero literario ugaritan jardun duelako, baina sarritan genero literarioen kodeak ere berrasmatu dituelako, edo genero literarioen mugetan jardun duelako: narrazio luzetik nobelanzko mugako eremuetan ibili da narraziogintzan; historia kolektibotik autobiografiaranzko mugako eremuetan ibili da *Zuri-beltzezko argazkiak* liburuan; edo saiakeratik autobiografiaranzko mugako eremuetan ibili ere *Bidean ikasia* liburuan.

Halaber, pentsamendu urratzaile aritu da Arantxa Urretabizkaia, liburugintzan ez ezik kazetaritzaren esparruan ere, askotariko moldeetan (zutabegintzan, elkarrizketagintzan, irrati eztabaidetan...). Pentsamendu zirikatzaile aritu zen ibilbidearen hastapenetan ere, itzultzaile lanak egin zituenean Lur argitaletxean. Besteak beste, Frantz Fanonen *Afrikar iraultzaren alde* itzuli zuen Ibon Sarasolarekin batera, eta aipagarria ere bada hitzaurrea, Simone de Beauvoirrekin elkarrizketan jarri zutelako Fanonen pentsamendua, gurutzatze eta galdera garaikidez zeharkatuz itzulpen ariketa ere. Zeharkatze eta gurutzatze askotarikoek sorturiko galderez josia dago Urretabizkaiaren pentsamendua eta literaturgintza.

Talde ekimenetan jardun izan du Urretabizkaiak: besteak beste, Lur argitaletxearen abaroan garatu zuen literatur ibilbidea; edo 1980ko hamarkadaren amaieran idazle emakume batzuekin batera (Amaia Lasa, Itxaro Borda, Laura Mintegi eta beste) *Jakin* aldizkariak sustaturik *Emakumeak eta literatura* gogoetagaia jorratu zuen plazarik plaza; edo Hondarribiko Alardearen auzian mugimendu feministarekin bat egin du. Nolanahi ere, talde jardun horietan, beti eutsi dio norberaren gela bat izateari, bere ekimen eta bide ñabartua egiteari.

Mende erdi beteko literatur eta kultur jardun hori omentzeko bildu gara gaur. Arantxa Urretabizkaiak, urratuz urratu, euskal liburugintzaren lurraldeetan sorturiko arrakala biziak eta bidezidor berriak ospatzeko elkartu ere. Sator-lan nekaezin horri geure estimua adierazteko.